


Astekaria



elgoi

**Hamasei txinar  
gure artean**

**IRAKASLE**

**ELKARTEA**

**ZEZENBIDE**

**auto-eskola**

San Frantzisko 43,  
☎ 74 27 20

# ALKATE ETA ZINEGOTZIEN EJENPLUA NAHI

## UDAL HAUTESKUNDEETAN EUSKARAZ DAKITEN HAUTAGAIAK BULTZATZEKO KANPAINA

### 95-99 LEGEALDIRAKO ALKATE-ZINEGOTZIAK

		ULERTU	HITZEGIN
	Guillermo Garate	2	2
	J. Mari Oruesagasti	2	2
	Isaak Loiola	2	2
	Belen Elortza	2	2
	Iñaki Oñederra	2	2
	Ana Santolaia	2	2
	Gotzon Arrieta	2	2
	Ales Arrieta	2	2
	Fermin Senosiain	2	2
	Itziar Goñi	2	2
	Pello Mendizabal	2	2
	Juan Karlos Markos	2	2
	Jabi Agirre	2	2
	Nieves Catarain	1	0
	J. Manuel Herreros	0	0
	J. Ignacio Ausin	0	0
	J. Carlos Abian	1	1

Iturria: Alderdi bakoitza

0. Ezer ere ez. 1. Zer bait. 2. Ondo.



ELGOIBARKO IZARRA  
Kultur Elkartea



### elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

#### ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

#### LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

#### ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia.

#### HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

#### ERREDAKZIO KONTSELUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.

#### KAZETARIAK:

Ainhua Lodoso,  
Jasone Osoro.

#### MAKETATZAILEAK:

Maiete Rementeria,  
Edu Sanz.

#### PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

#### ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortuoste.

#### KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

#### BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

#### INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



**1995** eko maiatzaren 28ak izan zuen gazi-gozorik. Dagoeneko bost egun pasa diren honetan, gozoak ahazten eta gaziak mingosten hasi zaizkit. Errealaren garaipen gozoa ahaztuxe badut ere, Udal Hauteskundeetako emaitzak bueltan darabiltzat uneoro. Baina, ez Elgoibarko “mapa politikoa” aldatu zaigulako, espainiar Estatukoaren itxura hartzen ari delako baizik.

Duela urte batzuk, hauteskunde kanpainaren atarian, Fraga Iribarneren APko botuek ez zuten buzoitik etxerako biderik hartzen. Zertarako, ba? Oraingoan, aldiz, sukalde askotako marmol gainean egon dira igandera arte eta horietatik 519k zinegotzi bilbotarra ekarri digute Udaletxera. IU-EB genuen aukera berria, PSE-EEren alternatiba deritzotena, eta honek ere zinegotzi berria ekarri digu Udaletxera. Azkenik, eta botuak galduz baina zinegotzi kopurua mantenduz, PSE-EEk laugarren postuan dirau. Laburbilduz, 6.308 hautesletatik

1.526k botu espainiarraren aldeko apustu garbia egin du.


Tartaren bigarren zatiak, botu euskaldunarenak, lehengoan dirau aldaketa batzuk izan ezik. EAJ-PNVk eta HBk zinegotzi bana galdu dute EAren mesedetan. Hori bai, botu euskaltzalearen kopurua mantenduz. Beraz, botu espainiarra gorantz doan bitartean, guk geurea mantentzearekin nahikoa lan.

Eta zer esan abertzale abstentzionistei buruz? Mesedetik gutxi eta kaltetik, berriz, asko egiten ari direla. Bada, etxetik kanpo bere burua euskaldun harrotzat aurkezten duenak, etxean bertan harroago aurkeztu beharko lukeela. Eta Tourmalet-eko maldetan ikurriña aideratuz ibiltzeak mesedea bakarrik dakarkigula.

Bestelakoan, paktuak paktu eta sorpresa atseginik prestatu ez badigute behintzat, zaharrak berri iraungo du datozen lau urteotan inguruan.

**Izaskun Elizburu**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



## GALDERAK

### **Ba al dauka Udalak txakurrentzako komunak ipintzeko asmorik?**

Ongizate Saileko teknikariek esan digutenez, momentuz ez dute horrelako eskaerarik jaso. Eskaerarik ez dagoenez ez dute gai hau batzordean aztertu.

## KEXAK

Mintxetako zuzendariak bi kexa ekarri dizkigu:

- Batetik, maiatzaren 21ean 50.000 pta balio zuen ikurriña lapurtu zuena salatu nahi du.
- Bestetik, San Rokeetik Mintxetara dagoen bideko ispilua dagoeneko bi aldiz apurtu omen dute, honek kotxe gidarientzat dakarren harriskuarekin.

Ez al dago beste erarik jendearen egonezina eta amorrua bideratzeko?

## TXALOAK

Irakurle batek honako txaloa bidali digu: “Zorionak BARREN egiten duzuen guztioi astelehen goizean jaso genuen informazioagatik. Portatu zarete kuadrila! Pentsatzekoa da igande gabian beteron batek makinatxo bat ordu sartu biharko zitxula. Eskerrikasko”.

## ESKUTITZAK

### **Gaztetxe baten beharra**

**G**aztetxearen eraisketaren laugarren urtemugako balorazioa zeharo positiboa iruditu zaigu. Eskerrak eman nahi dizkiegu gure ekintzak aurrera eramaten lagundu duten guztiei: malabaristei, taldekideei, tabernariei eta ekintzetan parte hartu duen jendeari. Behin eta berriz frogatu dugu gazteen topagunerako eta ekintzetarako falta zaigun lokala beharrezkoa dugula. Esan beharra daukagu Ertzainek ez zigutela oztopoak ipini, urte honetan behintzat.

Hori bai, guk ekintzak eta nahiak inongo errepresiorik gabe zabaltzea nahi dugu, nahikoa jasan dugu eta. Baina ez pentsatu errepresioa izango denik gu geldiarazteko bidea. Ordua da zuen interesak alde batera uzteko. Begiak zabaldu eta onartu gazteen urduritasunak asetzeko Gaztetxeak duen garrantzia. Kultur Etxean egin zen hitzaldian PNV, EA eta HB, gaur egun nagusi diren indar politikoak, gazteekin hitzegiteko prest azaldu ziren eta denbora luze pasa baino lehen horretarako lehen pausua emango dugula jakinarazi nahi dizuegu.

### **Gazte Asanblada**

Alberto Agirreazaldegik BARRENeko zuzendari izateari laga dio. Bi urte pasatxo zeregin horretan fin jardun ondoren, atsedena mesede egingo diola pentsatu eta bere kargua beste norbaiten eskutetan lagatzea erabaki du. Zuzendaritza laga badu ere, erleek loreetan bezala, Albertok BARRENen inguruan jarraituko du. Astekariaren bueltan gabiltzanok eskerrak eman nahi dizkiogu kargu honek ordu asko kendu eta hamaika burukomin eman dizkiolako zuzendari izan bitartean. Tartean momentu ahaztezinak izan direlakoan eta BARRENek bizitza oparoa izango duen ziurtasunarekin, ondo izan eta nahi duzun arte!



HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



**A**rgazki hau 1958. urteko urriaren 3an aterata dago eta **Begoña Gabilondok** ekarri digu. Jesus Guridi konpositore euskaldunaren "El Caserio" zarzuela *Odeon* antzokian antzeztu zutenekoa da. Ez zen honako zarzuela hau Elgoibarren taularatzen zen lehen aldia, 1939an arrakasta handiz antzeztu omen zen lehen aldiz. Oraingoan **Jose Juaristi** elgoibartarra izan zen zuzendaritzaz arduratu zena eta bertan herritar mordoak hartu zuen parte. Musika arloan zuzendari izan ziren **Felix Lodoso** eta **Kontxita Santolaia** eta

dekoratzailea **Jose Antonio Estibariz** izan zen.

Garai hartako esku programan parte hartzaile hauek agertzen dira: **Mari Angeles Kortabitarte, Itziar Ajuria, Mari Karmen Araolaza, Mari Karmen Iriondo, Angela Zabaleta, Migel Sanchez, Paco Juaristi, Tomas Garcia, Jose Zubiaurre, Angel Iriondo, Angel Riaño, Jose Mari Ruiz, Bittor Arri-zabalaga, Benito Saez, Eduardo Irusta, Sabin Beristain, Karmelo Sanz, Ignacio Arizmendiarieta, eta Ricardo Araolaza.** Hauez gain, ezpata dantzariak, baserritarrak, apaizak, monagiloak eta hainbat herritar aritu ziren.

**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8  
behea  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Biltegia:  
Arregitorre, 10 - 14 behea  
Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
**20870 - ELGOIBAR**  
Gipuzkoa

**EGONDO, s.a.l.**

METALEZKO ERAIKUNTZAK  
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

**Kafetegia**

**MEKANOSA**

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

# Ekialdetik bisita

Txinar talde bat, hamalau gizon eta bi emakumez osatua, Elgoibarko Erreminta Makinaren Institutuan dago joan den martxotik erreminta makinaren sektorean teknologia berriak ikasten. MOFTEC Txinako Ekonomi eta Komertzio Kooperaziorako Kanpo Ministerioa, ICEX, AFM eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmen bati esker egongo dira ekainaren 15era arte txinarrak Erreminta Makinaren Institutuan. Pasiaran ikusi ditugu azken hilabeteotan herriko kaleetatik, lasai asko, haur eta nagusien begirada kuriosoen artean.

**E**rreminta Makinaren Institutura abiatu gara txinarrak ezagutu asmoz. Etengabeko Heziketa arduradunak, Eduardo Campok egin digu ongi etorria eta txinarrak dauden klasera sartu aurretik hamaitzko azalpen eta anekdota kontatu dizkigu azken hilabeteotan haiekiko sorturiko lotura afektiboa erakutsiaz. Kontrol numerikoko klasean daude, eta gure kamarak beraien begi txiki eta ilunekin topo egin du.

Eduardo Campok txinarraren bisitaren nondik norakak azaldu dizkigu. Beijingekoak dira jatorriz, hala esaten omen da Pekin txinarrak. Hamaseiko taldea osatzen dutenetatik gazteenak 26 urte ditu eta zaharrenak 53. Denek dute erreminta makinaren sektorearekin lotura estua; guztiak dira tornu edo fresadora fabrikatzaileak eta tartean irakaslerik eta automozioan lan egiten duenik ere bada. 300 ordu iraun ditu ikastarok. Tornuen kontrol numerikoa, zentru mekanizatuen

kontrol numerikoa, ordenagailu bidezko diseinua eta metrologia ikasi dute. Teknologia hauek oraintxe ari dira sartzen Txinan eta erreminta makinaren sektorean munduko bigarren produktorea da. Dударik ez dago elkartruke hau harreman komertzial berriak sortzeko bidea izan daitekeela.


## Eguneroko bizimodua

Goizez eta arratsaldean klasean izaten dira txinarrak. Eguerdian eskolan bertan bazkaltzen dute eta afaldu eta gosaldu, berriz, bizitzen ari diren etxeetan egiten dute, "hango erara" dio He Wei-k, taldeko itzu-ltzaileak. Erreminta Makinaren Institutuari buruz galdetzean, inpresio ezin hobea jaso dutela esan digute, "Elgoibar erreminta makinaren hiriburua izanik, Estatuko instituturik prestatuena da eta bertan daude irakaslerik onenak". Bertoko irakasleekin ere harremanak ezin hobekak direla azaldu digu Eduardok, "joan aurretik soziedaderen batean afari bat egingo dugu elkarrekin, opariak elkartrukatu eta abesti bat kantatuko diegu, beraiek kanturako zaletasun handia baitute".

● ● ● ● ● ● ● ●  
Zapata modernoak, goxokiak, dekoraziorako gauzak eta Errioxako ardoa erosi dute Txinara eraman asmoz  
● ● ● ● ● ● ● ●



Horrela idazten da BARREN txinarraren grafian.



**Mandiola S.L. Egurrak**  
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Elgoibar ezezik inguruak ere ezagutzeko betarik izan dute: Eibar, Deba, Donostia, Bilbo... Denbora librean zine-  
ra, mendira edota erosketak egitera joaten dira, baina "denbora gehiena etxean kar-  
tajokuan igarotzen dugu". Elgoibar bezalako herri txiki batean denetarik edukitzeak harritu ditu, "Txinan hiriak oso handiak dira eta lantegiak ere bai, hemen berriz, lantegi batean 50 langile bakarrik daude". Janaria nahiago dute jatorrizkoa. Ez zaie gehiegi gustatu; Errioxako ardoa bai, ordea. Euskal Herrian hainbeste jai egoteak harritu ditu, larunbat gauetan tabernetan ere ibili dira, baina ez gehiegi. Hori bai, "matxakaoren" bat edan dutela aitortu digute. Garestia iruditu zaie hemengo bizimodua, dena den zerbait eramango dute Txinara, Corte Inglesean erositako zapata modernoak, goxokiak, dekoraziorako gauzak eta Errioxako ardoa, noski.

### Ohorezko kideak

Anekdotak ere mila izan dituzte. Eduardok kontatu digunez, etorri ziren egunean, bertoko bazkari eder bat pres-tatu zieten ongi etorri modura. Entsalada, bildotsa eta gaztoa. "Janari hain ezberdina ikustean, eta batez ere horren zati handiak, ez zuten ezertxo ere jan, beraiek dena txiki txiki eginda jatera ohituak daude eta. Hori bai, behin Gasteizko jatetxe txinar batera joan ginen, eta orduan bai, hura izan zen gustura jatea!".



■ ■ 16 txinarrek osatzen dute IMHn dagoen taldea. Beraietako batek gaztelaniaz hitz egiten du.

● ● ● ● ● ●  
**Hurrengo talde txinarra irailean etorriko da**  
 ● ● ● ● ● ●

Beste anekdota bat Bilbon gertatu zitzaiena. Jatetxe batean Sevillako kofradia batekoekin topo egin zuten eta "ohorezko kide izendatu zituzten, lagun handiak egin baitziren".  
**"Itsasoa, nire jaioterria"**

Kanturako zaletasun handia dute txinar hauek. Edozein

une da aproposa kantatzeko. BARRENekei agur esateko ere, jatorrizko hizkuntzan kantatu digute, "Itsasoa, nire jaioterria". Guk BARRENeke 16 ale gordeko dizkiegula agindu diegu, etxera itzultzean Elgoibarko aldizkarian protagonista izan zireneko aldia sekula ahaztu ez dezaten.

## Hizkuntza, oztopo gaindiezina

Txinarrak oso bereziak dira giza harremanetan. Aurkezpenak egiterakoan, hierarkiak errespetatu egin behar dira. Wang Zuosheng, Txinako Ekonomi eta Komerztzio Kooperaziorako Kanpo Ministerioko ingeniari ataleko arduraduna, taldeko zaharrena eta denen buruzagia da eta buruzagi bati dagokion errespetua diote. He Wei, berriz, gazteenetarikoa da, eta berak egiten ditu itzultzaile lanak. Filologia espainiarra ikasi du, hemengo bizimodua gustuko duena eta ohituen dagoena da eta berari esker mantentzen da txinaren eta gure arteko komunikazioa. Dagoeneko etxera itzultzeko desiatzen daude "jendearekin ezin komunikatzea izan baita gure taldeak izan duen oztoporik handiena" dio He Wei-k, taldeko itzultzaile okzidentalizatuak. Eduardo Campok esan digunez, hurrengo talde bat irailean da etortzekoa, "baina hurrengoan gaztelania klaseak ere emango dizkiegu, hemengoekin elkar ulertzeko modurik izan dezaten".

**ELENA**  
 ileapaindegia  
 Depilazio Elektrikoa  
 San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

**GARAY**  
  
 HARATEGIA  
 San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

Baserriko haragietan berezia  
  
 Harategi Urdaitegia  
 San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

**MALAPE**



**REBECA TOLENTINO**  
35 urte, etxeoandrea

Ahal izango banu egingo nuke. Aldatzekotan bularrak aldatuko nituzke baina garestiegia da. Gai-nontzean ez diot kirofanoari beldurrik.



**MAITE ABAD**  
17 urte, ikaslea

Zirujia egitea gauza superfizial bat dela uste dut. Nik ez nuke inolaz ere egingo. Gainera aurrez ez dakizu operazioa eta gero ondo geratuko zaren.



**PATXI ARBERAS**  
37 urte, dendaria

Ez zait sekula burutik pasa. Eguzkia dagoen tokian ezin euririk egin, eta alderantziz ere ez. Sudur handia tokatu bazaizu, konformatu egin behar.



**ANTON MUGERZA**  
31 urte, modelista

Ez nuke egingo beharrik ez daukadalako, baina nahi izanez gero ondo ikusten dut. Seguritate Sozialean egiteko aukera egon beharko litzateke.



**IRUÑE ARAUJO**  
17 urte, ikaslea

Ez zait ondo iruditzen. Nik ez nuke aurpegia ez eta gorputza ere aldatuko, ni neu horrelakoa naiz eta naizen moduan onartu beharko naute.



**FAUSTO VITORES**  
74 urte, jubilatua

Istripua izanez gero bai, edo konpleju bategatik bere burua besteen azpitik duen pertsona baten kasuan ondo ikusten dut.

**ASESORIA  
GOIAR**

**AHOLKULARITZA**

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAk
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAk

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

*okindegia eta gozotegia*

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35  
**ELGOIBAR**



# **E.T.E.O. ENPRESA ESKOLA**


**Ballara honetan ezaguna den ETEOko zuzendari berria den Jose Luis Abaunzekin elkarrizketatxo bat egiteko aukera izan dugu.**

- Jose Luis, esai-guzu zer den ETEO?

- ETEO, Hezibide Elkarte Talde Hezitzailearen barnean kokatuta dagoen gizarte inizatiba duen zentroa da. Orain dela 35 urte sortu zen eta Administrazioa, Informatika eta Marketing-a ematen dituen eskola bat da. Bertan ikasketak unibertsitarioak ditugu eta baita ikasketak bertan ere.

- Ikasketak bertan zer ematen duzue?

- Hemen hiru ikasketak mota ditugu: Alde batetik, "Administrazio eta Gestio Gai Baxtergoa". Hori egiteko REM I.etik etor-



tzen dira, eta batez ere Enpresarialak, Ekonomikak edo Zuzenbidea egin nahi dutenak. Bestetik, "Gestio programatzailea III" moduloa. Urtebeteko iraupena du eta enpresetan praktikak egiteko helburua du.

Eta azkenik "Lanbide Heziketa II. maila". Ikasketak hauen egiteko REMetik, REM II.etik, COUtik edo BUPetik etortzen dira.

Esan behar dugu ikasketak hauen maila ona ateratzen ari garela.

Eskolan bertan ditugun unibertsitari ikasketetan, ateratzen dituzten emaitzak, batz besterik, media baino hobekak dira.

- Eta unibertsitari ikasketetan zer?

- Hemen enpresarialak ditugu. Goi ikasketak dira, eta hiru espezialitate ematen ditugu:

Marketing, Finantza eta Informatika. Esan dezagun lizentziatura ateratzera gero Bilbora joaten direla eta batzuk baita Manchester, Birmingham eta Staffordshirerako unibertsitateetara ere, masterra egiteko.

- Seguru asko aurreinskripzioak hasita egongo dira, ezta?

- Beno, ertainetan maiatzaren 4tik 18ra izan da eta Enpresarialetan, berriz, maiatzaren 22tik ekainaren 23ra izango da.

- Ikastetxea handitzen ari zaretela ikusi dugu.

- Bai, kalitatezko ikasketak emateko baliabideak derri-gorrezkoak dira. Horregatik eta masifikatu gabeko klaseak ez izateko ikastetxea handitzen hasi ginen, 40 ikasle inguruko talde txikiak osatzeko.

## ■ Eliz abesbatzaren kontzertua igandean

Eliz abesbatzak Trinitateko kontzertua emango du hilaren 4ean, igandea, arratsaldeko 7,30etatik aurrera Laura Bilbaoren zuzendaritzapean. Emankizuna Elizan izango da honako kantu hauek abestuko dituztelarik: "Regina Coeli" (A. Lotti), "Abschied Von Walde" (Mendelssohn), "Free at last" (Hairston), "Glorius Kingdom" (Kelberg), "Blancas como palomas" (A. Domay), "Let it be", "Yesterday", "Michelle", "Hey Jude" (Beatles) eta "Danny Boy" (C. Stormman).

## ■ Mozart laukotearen kontzertua asteazkenean

Datorren asteazkenean, hilak 7, Poloniako Mozart laukoteak kontzertua emango du Herriko Antzokian arratsaldeko 8etatik aurrera. Elisabeth Podolak, Waldemar Machmar, Grzegorz Kawka eta Aleksander Mikolajzyk dira laukotea osatzen dutenak, flauta, biolina, biola eta kontrabaxua. Lauak dira poloniarak eta maila handiko musikariak. Bi zatitan banatutako emanaldian zehar Mozart, Bach, Hoffmeister eta Olaizolaren obrak joko dituzte.

## ■ Ehizatzeko baimenak

La Union elkarteak ehizatzeko baimenak honako egun hauetan egin ahal izango direla jakinarazi nahi du: asteartean, asteazkenean eta ostegunetan arratsaldeko 7,30etatik 8,30etara bitartean La Union elkartearen. Baimenak tramitzatzeko epea ekainaren 20an bukatuko da.

## ■ Trikitilari eskolako urte bukaerako jaialdia

Trikitilari Eskolako irakasle eta ikasleek ikasturte bukaerako jaialdia eskainiko dute hilaren 9an, ostirala, gaueko 10,30etan hasita. Zabale anaien eta Lurdes Alkortaren zuzendaritzapean 29 soinu-jolek eta 32 panderojolek ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute. Saioa Herriko Antzokian izango da.

## Erreminta makinaren prestakuntzarako proiektua aurkeztu zuen Idekok



Idekoko Teknologi Zentruak Garen eta Ikerketa Programa Europarraren barruan burututako SINTOMA proiektua aurkeztu zuen joan den ostegunetan Erreminta Makinen Institutuan. ESPRIT-IV Programa Marco izenekoaren laguntzaz, makina erreminten azken prestakuntzarako sensoreak integratzen eta inteligentzia artifizialeko teknikak aplikatzen ditu Sintoma izeneko egitasmoak. Ekitaldian izan zen AFMko lehendakariak, Patxi Aldabaldetrekuk adierazi zuenez, "aurre-erapausu garrantzitsua da proiektu hau, gure makinaren eraginkortasuna

eta segurtasuna handitzen baitu". Aurkezpenean Juan Manuel Minguez Idekoko nazioarteko harremanetarako arduraduna eta Sintoma proiektuaren zuzendaria, Javier Aranzeta arduradun teknikoa, Elias Gisasola Danobateko ordezkaria, INAko arduradunak eta UCDko ardurak izan ziren.

1992an eman zituen lehen urratsak Idekoren buruzagitzapean eta aurten, abuztu aldera, bukatuta egon daiteke. Alemaniako INA, Irlandako University College of Dublin eta Danobat enpresarekin elkarlanean burutu du Idekoko Sintoma proiektua.



**BARRENEk** antolatutako hauteskunde kinielaren irabazlea Blanka Salegi izan da. Kiniela asmatu zutenen artean egindako zozketan Blankak izan zuen zortirik handiena, hortaz, Txankakua Merkataria eta Zerbitzarien elkarteak emandako 25.000 ptako saria berarentzat izan da. Argazkian Txankakua Merkatarien Elkartearen lehendakariarekin saria jasotzen.

## Urasandiko tximistorratz erradioaktiboa kendu dute



**O**rain dela laupabost urte, Urasandiko 41, 43, 45 eta 47 zenbakietako bizilagunak, beraien etxeetako elektrodomestikoak ekaitza zegoen guztietan izorratu egiten zirela konturatu ziren. Zergatia bilatzen hasi eta teilatuan jarrita zegoen tximistorratzaren ondorioa zela jakin zuten, aipatu tximistorratza erradioaktiboa baitzen. Hori ikusiz, eta era horretako antenek duten arriskuaren aurrean, kentzea erabaki zuten. Industria eta Energia

Ministeritzak tximistorratz erradioaktiboak doan kentzen dituztela jakin zutenean eskaera egin zuten eta joan den asteartean, maiatzak 30, Madridetik etorri ziren bi tekniko kentzera. Orain tximistorratz atmosferiko bat jartzeko asmoa dute baina Urasandi auzoa oso osorik babesteko jarri beharko litzatekeenak asko balio duenez eta Udale-txeak %15 baino emateko asmoa ez duenez, momentuz txikiago bat jarriko dute.

### ■ Gazte Asanbladak estatutuak aurkeztu ditu

Elgoibarko Gazte Asanbladak Gaztetxe bat sortzeko estatutuak aurkeztu zituen astelehenean Udaletxean. Udalak Gazte Asanbladaren puntu guztiak, hirugarrena ezik, lokalari buruzkoa alegia, onartu zituen 1986an. Estatutuen aurkezpenarekin bat, lokal bat eskatu zuten Ongizate Sailean. Gazte Asanbladako kideek esandakoaren arabera, "gazteariaren gehiengoak dago Gaztetxearen alde Siadecoren inkestan eta Izadi taldeak egindako ikastaroetan argi geratu zen bezala". Honez gain, "herriko kolektibo eta pertsona mordo baten aldeko sinadurak jaso ditugu azken urteotan".

### ■ Oporrei buruzko hitzaldia eta diapositibak

Oporretarako sasoia gainean dugunez, Elgoibarko Izarrak gai honen inguruan diapositiba emanaldia eta hitzaldia antolatu ditu datorren ostegunerako, hilak 8. Kirola eta abenturari buruz arituko da Adrian Langara Xauen bidaiak-eko arduraduna, Mari Karmen Iriondok eta Xabier Ansolak planifikatu gabeko oporren inguruan beraien esperientziak kontatuko dituzte eta azkenik, Izaskun Arozenak eta Edu Badiolak brigadista moduan izan zireneko kontuak azalduko dituzte. Saioa arratsaldeko 19.00etan hasiko da Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### ■ Musikeskolako matrikulazioa zabalik

Inazio Bereziartua Musikeskolan matrikulatzeko epea hilaren 15era arte luzatuko da. Ikasle berriek astelehenean ostiralera bitartean, arratsaldeko 5etatik 7ak arte eman ahal izango dute izena. 95/96 ikasturtean hasteko gutxieneko adina 5 urtekoa da, hau da, 1990. urtetik atzera. Lehenagotik ikasle direnak goizez 10,30etatik 12ak arte eta arratsaldez 7,30etatik 9ak arte pasa ahal izango dira merkatu plazako tronpeta klasetik hilaren 5ean, 7an, 8an, 12an, 14ean eta 15ean. Izena ematerako orduan 2.000 pta ordaindu beharko dira. Instrumentu batean apuntatuz gero, musikeskolako talde ezberdinetan (soka taldea, banda, txistu taldea...) parte hartzera behartua dago ikaslea, eskolako zuzendaritzak hala nahi izanez gero.

### ■ San Migeltarren eguneko ospakizunak

San Migeleko auzotarrek San Migeltarren eguna ospatuko dute hilaren 18an. Egun berezia izango da, San Migeleko ermita eraiki zenetik 150 urte igaro direla ospatuko baitute. Goizeko 11etan meza izango da ermitan eta sarrera gisa Pello Arrieta historialariak ermitari buruzko gorabeheren inguruan hitz egingo du. Ondoren oroigarria desestalko dute eta aureskua dantzatuko da. Ordubatean Banakako II. Esku Pilota Txapelketari dagokion azken partidua jokatu da auzotarren artean eta ondoren anaiarteko bazkaria izango dute Rekalde anaien eta bertsolarien ekitaldiarekin. Bazkarirako txartelak 2.500 ptaren truke eskuratu ahal izango dira hilaren 13a baino lehen Armueta harategian, Kalamua elkartearen edota Javier Arrizabalagari 74 24 78 zenbakira deituta.

### ■ Zine emanaldi gutxiago

Udalak igande arratsaldeko haurren zinea eta larunbat arratsaldeko emanaldia kentzea erabaki du. Asteburu arratsaldeko emanaldietara ez omen da jenderik joaten, hortaz, iraila arte ez da larunbatean 7,30etako eta igandean 4,30etako emanaldirik izango.

Ana Maria Izuzkiza:

## "Jainkoarenganako maitasunak garamatza urkoa maitatzera"

Ana Maria Izuzkiza, donostiarra da eta 50 urte ditu. 1967. urtean botoak hartuta, 1992an egin zituen zilarrezko eztaiak ordena barruan. Denbora horretan bere bizitza leku ezberdinetan eman du, hala nola,

Valladolid-en, Gasteizen, Donostian, urteren batzuk Gurutze Gorrian eta Ospitale Probintzian, Onkologikoan eta azken urte t'erdian Elgoibarren dago, Karidadeko alabekin.

- **Topikoa dirudien arren, zerk bultzatu zintuen erlijiosa bizimodua aukeratzera?**

- Lehenik eta behin, bizitza erlijiosoa egiteko bokazioduna izan behar da, Kristogatik egiten den aukera bat da. Horrek ez du esan nahi aukera hau besteak txarrak direlako egiten dugunik. Aukera bat da, eta bata hartzeko, bestea utzi behar, ezin baitira biak batera hartu.

- **Eta zergatik ordena hau eta ez beste bat?**

- Nik Karmelita izateko asmoa neukan haseran, baina Basurton erizain ikasten nengoela ezagutu nituen Karitateko alabak. Beren lana gustatu zitzaidan: misio lanak eta gizarte mailan lan egin daitekeen arlo guztietara daude hedatuak, eta hementxe nago, eta oso pozik gainera.

- **Kontaiguzuz zein den kongregazioaren karisma, zertan aritu izan den eta zertan diharduzuen orain.**

- Karitateko alaben ordena behartsuari laguntzean oinarritzen da, ahalik eta txiroenei laguntzen, baina beharra duen orori orokorrean. San Vicente de Paulek 1633an sorturiko ordena gara. Frantzian sortu zuen bertan zegoen beharra ikusi ondoren.



" 1.633an sorturiko ordena gara, gerrate eta gatazkek sorturiko beharrei erantzuteko"

Garai hartan gerrate eta gatazka ugari zen, eta berauek sortzen zuten nahigabeari, preso, umezurtz etabarri erantzuna emateko beharra ikusirik sortu zuen. Haseran Pariseko dama aberatsak hasi ziren laguntza hau ematen, baina lanik gogor eta astunenak ezin zituztela egin ikusita, zenbait neska gazte, jatorri apalekoak, hurbildu zitzaizkion lan horri ekitera, eta horrela sortu zuen Karitateko alaben ordena.

- **Nolako instituzioa da?**

- Sekularra da, botuak pribatuak ditu eta sasoi hartan sortu zenetik gaude

gu lanean. Preso galeote, umezurtz eta ospitaleetako txiroekin hasi zen, etxez etxe eta behar zen lekuetara joanez, lapikokada jan eta ogia eramanez, baina denborarekin instituzionalizatuz, ospitaleetara etab. eramanez.

- **Eta gaur egun?**

- Gaur egun honako alor hauetan dihardugu lanean: osasunean, hirugarren adineko zaharrekin, toxikomanoak, ama ezkongabeak, haurtzaindegiak, ia mundu guztian gaude misoetan, kartzelatik atera eta nora jo ez daukaten emakumeekin ere dihardugu, HIESdunekin... Arazoa

da gero eta gutxiago gaudela eta badakigu; ahal dugun eskaintzarik zabalena ematen saiatzen gara.

- **Zein da egoitza batean lan egitearen alderik onena?**

- Behartsu edo urkoari laguntzen eginiko lanak zaren hori eskaintzeko beta ematen dizula. Egunaren bukaeran satisfazio handia ematen du. Urkoari eskaintza hori, bokazioz eginiko zerbaiten gisara ulertzen dugu guk. Jainkoarenganako maitasunak, urkoari eta behartsuari laguntzera baitgaramatza, bere zerbitzura.


- **Eta gogorrena?**

- Adin honetako jendeak baditu bere gauzak, eta guk eguneko hogeita lau orduak ematen ditugu beraiekin... eta sarritan goibel ikusi behar izaten ditugu. Gogorrena jende honek, bere azken urteetan, gure maitasun eta atentzioa bakarrik dutela ikuste da.

- **Zergatik merezi du jendeari eskaintako bizitza izateak?**

- Gogorra dirudien arren, esker oneko lana da, eta norbait bokazioduna bada, bizimodu honek zeharo betetzen du. Beraientzat balioko izatea handia da guretzat.

XABIER GORRITI

**FERISALTSAN****Salerosketa ugari izan zen maiatzeko ferian**

**R**ehiak, ahuntzak, astoak... Denetik zegoen joan den zapatuko ferian.

Baserritarrak ere ugari, arratsalde partean behintzat, nahiz eta eguraldi ona aterata zen, epela eta eguzkitsua, ezin hobea belarra jasotzeko. Han ibili ginen aurrera eta atzera ferriako berriak jaso asmoz eta bildu genituen gauzen artean gure aurrean bi salmenta ikusi genituen. Alde batetik, baserritar batek hiru ahuntz erosi zituen, ama eta bi kumeak. Guztiaren truke 15.000 pta ordaindu zituen. Horrezaz gain, behi baten salmenta ere izan zen, umea egin berri zuen behia erosi zen, esnetako behia. Prezioari dagokionean, be-

rriz, 350.000 pta inguru. Erosleak esan zigunez zapatuan ez zen behi gazte gehiegirik egon, "pinta gorriak eta beltzak gutxi daude, suiza etorri da gehixenbat eta esnetako bestiak dia hobiak". Halere, bata egon edo bestea falta, kontua da jendea urreratu zela maiatzeko ferriara. Eguzkiak bete betean jotzen zuen Plaza Txikian, bero egiten zuen eta giroaren epelak jendearen berbetarako go-go eragiten zuen, bestetan baino gehiago, hori posible bada. Eta oraingoan gauza bitxirik ere ikusi genuen, guretzat berria zena behintzat. Baserritar batek artilea nola egiten duen erakusten zuen bai eta berak eginiko galtzerdiak saltzen ere.

**SAN ISIDRO EGUNA**

**M**aiatzaren 15ean San Isidro eguna izan zen. Baserritarrek beraien eguna ospatzen dute data horretan eta Deba Bailara-koek azken urteetan Arraten izaten dute euren topalekua. Goizean goiz ematen zaio hasera jaiari, meza, herri kirolak eta, nola ez, bazkaririk ere izaten da. Mahai baten edo biren bueltan hainbat eta hainbat lagun elkartzen dira jaki goxoak dastatu, elkarrizketa epelak izan eta bertsolarien bertso zirikatzailak entzun asmoz. Eguraldia nahikoa ondo portatu



zen. Eguerdi partera euriak amenazu egin zuen, tanta ba-tzuk erori ziren baina haserako sustua igaro eta gero, aterri iraun zuen San Isidro egunak. Baserritarrek aukeran izan zituzten autobusak Arrateraino joateko eta bueltatzeko. Ziur askok eta askok ondo baino

hobeto egin zutela lo gau horretan, egun osoko juerga eta nekeak atsedena behar zuen eta. Hurrengo goizeko ajeak pena merezi izango zuenaren zalantzarik ez zuen inork izango. Datorren urtean ere izango da maiatzaren 15a. Izango da San Isidro eguna.

# Aittola gurutzeko eguna

**A**ittola Zahar baserriak antolatzen du gaur egun garai batean Aittola Berriren esku zegoen Aittola gurutzeko eguna. Aurten ekainaren 18an ospatuko da Aittola gurutzeko eguna. Hurbiltzen diren guztiek egitasmo benetan zabala eta konpletoa izango dute aukeran. Lehenik eta behin meza izango da gurutzean bertan. Ostean bertsolariak arituko dira, Egaña eta Lizaso. Eztarriak epeltzeko eta gose puntua irekitzeko salda beroa eta txorixoa dastatzeko aukera izango da gurutze ondoan dagoen soziedadean eta ondoren bazkaria, Aittola Zaharren. Arratsalde partera, 4,30ak inguruan, Egaña eta Lizaso arituko dira berriz ere eta ondoren, gorputzak arintzeko Laja eta Landakanda trikitilarien



eskutik erromeria izango da Aittola Zahar baserriko ganbaran. Bederatziak arte iraungo du dantzaldiak baina afaldu eta gero festarako animoa duenak badu aukerarik jai giroan jarraitzeko, 11etatik aurrera trikitilarien txanda izango baita berriz ere, egunari amaiera emateko.

# MINTXETA

**Baserri gutxi izango dira Elgoibarren hau beste ezagutzen direnak, izenez behintzat. Mintxeta baserria San Roke auzoan kokatua dago, justu Mintxeta kirol instalakuntzen gainean. Bost pertsona bizi dira bertan gaur egun eta tradizioak tradizio, badira bi bereziki nabarmentzen direnak, hauen artean trontza eta harrijasotzea.**



Juani Bastida Mendaroko Atxuri baserrikoa da. Gaztetan Donostian izan zen etxe batean serbitzen baina niri buruan bizi zen arren, beti ibiltzen zen auzoz auzo, erromeriaz erromeria, "horietako batean ezagutu nuen Jose Mari, senarra, Mintxeta baserrikoa". Kaleko abantailak baino nahiago du baserriko bakea, "gainera bizi geran tokian bizita, nahiko gertu gaude kaletik. Kaleko eta baserriko abantailak dauzkagula esan daiteke". Gazta eta ardi esnea kalean saltzen dituzte baina gainontzean, baratzeko guztia etxean bertan jaten dute, "justu justu itxen dot ortua, etxerako aina, gehixao ez. Lanik haundixena negu partian behixek eta udan belarra jasotziak ematen dabe". Senarrak kalean egiten du lan, beraz, Juanik egun osoa bakkarik ematen du baserrian, "behin edo behin apuroren bat pasatu dot behiren bat umia itxen hasi eta bakkarik egon naizenian. Auzoko bateron baten bila juten naiz, laguntza eske".

## Trontza eta harrijasotzea

Anaia biak herri kirolen munduan sartuak ibili izan dira, eta egun ere badaude. Jose Mari trontzalaria da eta Pedro Mari *Mintxeta* harrijasotzaile ezaguna izanikoa. "Orain Pedro Marik 'Egi' harrijasotzaile gaztia entrenatzen dau". Halere, etxean bertan bada ohiturari ertsiko dionik, antza, "semeak, Ar-



Izen bereko kirol instalakuntzen gainean dago Mintxeta baserria.

## MINTXETA

- **AUZOA:** San Roke.
- **BIZILAGUNAK:** Pedro Mari Egaña, 47 urte; Jose Mari Egaña, 45 urte; Arkaitz Egaña, 11 urte; Leire Egaña, 8 urte eta Juani Bastida, 35 urte.
- **LUR HEDADURA:** 14 hektarea.
- **ANIMALIAK:** Behiak, idiskoa, 7 txekor, ardiak, untxiak, oiloak...
- **PRODUKTUAK:** Etxerako baratza.
- **BIZIMODUA:** Kaletik.

## TXATA

Zaldia eta moxala dute Mintxeta baserrian, "kapritxora gehixen bat eta inguruko belarra jan daixen baitxa ere". Halere, badute behor bat benetan berezia dena, "Txata izena dauka. Oin alboko baserrikuak dake, belar luzia zakela eta jan zeixan eskatu ziguten. Baina bera, Txata, egunero etortzen jaku ate ondora, muturra sartu eta ogixa eskatzen dau. Holaxe ohitxu genduan guk eta. Oso detallusia da, kariño haundikua".

kaitzek, txikitatik erakutsi izan du harrijasotzeko afizua". Pedro Mari- ren hitzetan, "beti ibiltzen zan begira, eta behin etxe onduan harrapatu naban egur zahar haundi bat jaso nahixan". Orain, Arkaitz Egaña, 11 urteko mutikoa, Mintxeta Txikia, herri eta auzo ezberdinetan ibiltzen da harrijasotzen, "36 kiloko zilindrua eta 30 kiloko kubikua".

Gustura ibiltzen dira baserrian Arkaitz eta Leire, "askotan lagunak kaletik etortzen dira bizikletak hartuta". Semeak, gainera, ba omen du gustu bereziren bat, "harentzat eskolan nota onak ateraz gero dauan saririk onena txori bat erregalazia da. Oin ere lau bat perikito dauzka. Izugarri gustatzen jakoz".

## Mintxeta kirol instalakuntzak

Ezkondu zenetik gaur arte makinan bat gauza ikusi izan ditu Juanik baina guztien artean bat aukeratu beharko balu, "Mintxeta kirol instalakuntzarekin geratuko nintzake. Bizixa eman dio horrek inguruari". Egunerok, goizean goiz jaiki, seme-alabak Ikastolara eruan, etxeko jiria egin eta, "baratzen ibiltzen naiz pisikat, Mintxetan ipintzen dabon musikian erritmora". Halere, aitortu digunez, "ez dakigu zergatik ipini zuten Mintxeta izena, akaso frente frentian daualako baserria, baina ez diogu inportantziarik eman horri".

# Jabier Arrizabalaga:



**7** iarda izenez ezagunagoa da Jabier Arrizabalaga baino. Orain dela 43 urte jaio zen San Migel auzoko Ziarda baserrian. Bertsolaritza gazte gaztetik bizi izan du. Irratiz entzuten zituen garai batean bertsolariak eta geroago, bera izan zen plazaz plaza bertsoak botaz hasi zen gizona. Gaur egun, ezkondua eta bi seme dituelarik, oso gazte lanean hasi zen enpresa utzi eta baserrira egin du buelta.

**- Baserrira buelta hori nola eman da?**

- Ez da buelta bat izan. Ni ez naiz sekula baserri mundutik aparte egon. Baserrixan jaio nitzan eta baserrixan bizi izan naiz beti. 15 urtekin Geminisen hasi nitzan lanian eta han aritxu naiz oin dala gutxi arte baina beti baserrixakin jarraitxuz. Oin dala hilabete

batzuk gauzak okertu zian Geminisen eta lagatzia pentsatu naban.

**- Nola moldatzen zarete?**

- Oin arte parua euki dot eta ez dot astirik euki baserri txik bizitzia posible dan ala ez ikusteko. Momentuz okelatako ganadua, ardiak, bihorrak, untxixak... danetik dakagu. Poliki poliki gero eta gehixao eukiko dogu.

**- Horrenbeste urtian kalean lan egitetik baserrira egun osorako.**

- Bai, alde piskat bada go. Geminisen nere orduak sartu eta etxera juten nitzan. Baserrixan beti dago

zeozer itxeko baina bentaja bat badauka, norbera da ugazaba eta norberak erabakitzen dau zer egin bihar dan eta noiz. Norberak antolatzen dau egun bakoitza.

**- Bertsolaritzaren afizioa noiz hasi zitaizun?**

- Akordutzen naiz txikitan beti egoten nitzala irratixan bertsoak entzuten, Lasarte, Uztapide, Basarri... Poliki poliki neu hasi nitzan bertsoak itxen, lagunen artian. 16 urte nitxuanian sariketa batian hartu naban parte Gabirian eta lehen aldiz Mallabiko plazan kantau naban.

**- Nolako ia izan zen jende aurreko lehen aldia?**

- Ez dozu imaginatzen nolakua izango dan baina kapaza zerala ikusten dozu eta konfiantziakin juten zera. Neretzat askoz gogorra da txapelketatan hartzia parte, hor ipintzen naiz benetan urduri.

**- Zertarako txapelketak?**

- Izanaz gain izena eskuratzeko. Izena dakanak plaza gehixao itxen ditxu eta horrek dirua ekartzen dau, ona zerala esatia nahi dau...

**- Bertsolaria zara izatez?**

- Ni bai. Neretzat bertsolarixa da inprobisatzeko gai dan pertsonia. Azkartasuna bihar dau bertsolarixak, motela bazara... Bertsolari onak lortu bihar dau azkenian entzulia hunkitzia. Neri ez jata gehixegi kostatzen inprobisatzia, askoz zaila da orri batian idatzizko bertsoak itxia. Erretzau botatzen ditxut hamabost bertso bapatian hiru bertso papelian idatzi baino.

**- Zure bertso onena?**

- Azkoitin txapelketa baten hamarreko txikixan Jose Ramon Etxeberria eta bixok elkarrekin egin genduan saio bat. Gaixa: bata Ameriketara zijuan eta bestia handik bueltatzen zan. Oso politxa urten zan.

**- Eta plazarik gustukoena?**

- Nik gusturen auzo txikixetan kantatzen det. Jendiak gehixao sentitzen dau bertsoa eta asko estimatzen dabe.

**- Anekdotarik?**

- Askok. Behin akordutzen naiz Zizurkilera juteko deitxu ziela Begiristainekin kantatzera. Ailegatu nitzan eta Begiristain ez zala azaldu. Elizan kantau naban bakarrik eta gero plazako saian berriz ere bakarrik bai eta bazkari ostian ere. Han pasatu naban estuasuna gutxitan pasau dot!

**- Askotan botatzen al dituzu bertsoak familian?**

- Noizian behin, eskatzen dienian.

**- Eta emazteari?**

- Gaztetan bai, nobiotan. Oin ez hainbeste, ohitxuta dago eta.

**- Zeren truke jeitsiko zinake kalera bizitzera?**

- Ezerren truke.

GEHIGARRI HONETAKO KOLABORATZAILAK: Asier Albizu, Idoia Esnaola, Agustín Irujo eta Karmen Kortá.



Maiatzaren 23an hil zen **MANUEL ULIBARRI ZUBIETA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**Mari Karmen Goikoetxea**

"Astigarraga"  
garajekoa



● **Zein da bizikletan ibiltzeko sasoirik egokiena?**

▶ Ointxe, udaberrixa eta uda partia.

● **Bizikletaz, mendian ala errepidean?**

▶ Niretzako mendixan hobeto, ze karreteran harrisku gehixao dao; kamioiekin eta hemen dauan trafikuakin...

● **Bizikletak daukan onena...**

▶ Ez daukala apenas gastorik, ez gasolaririk...

● **Eta txarrena?**

▶ Nekatu itxen dala eta indarra bihar dala.

● **Elgoibarko zer gurpilek behar du puztu on bat?**

▶ Umientzako bizikletan ibiltzeko toki gehixao.

● **Eta zer dago partzez josia?**

▶ Deportia eitzeko toki asko ein dabe, baina bizikletan ibiltzeko ez dao leku aproposik.

● **Haserako "alkilerretik" gaurko "garajera" aldaketa asko?**

▶ Bai, hasieran jai eta aste eitzen zaben lan, orain behintzat jaiegunetan jai hartzen dogu.

● **Eta bezeroengan aldaketarik?**

▶ Orain gehixao entenditzen dabe: halako bizikleta nahi dut, marka honetakoa...

● **Horrenbeste urtean, anekdotarik izango da, ba?**

▶ Anekdotak bai, asko, baina orain bat kontatzeko ez jata akordatzen.

● **Txirrindulari eta motorzaleak animalia batekin parekatzekero?**

▶ Txirrindulariak galgoekin, bizkorak direlako. Eta motorzaleak otsoekin, gogorak direlako.

● **Stress eta umore txarraren aurkako erremodiorik onena?**

▶ Urtetzia, bizikleta hartu eta buelta bat ematia.

● **Eta zeurea?**

▶ Ez, ez dot astirik izaten.

XABIER GORRITI

**REALA ETA  
ATHLETICA  
ANOETAKO  
DERBIAN**

Derbia Anoetan

Errealarena

Partidua irabazi

gauz nabarmena

nahiz ta Athletikoak

duten kriston pena

ez dezatela galdu

UEFA itxaropena

Kodro zen onena


De Pedro hurrena

Lorenen ordena

Etxeben kemena

Bost ta zero irabazi

zuten azkena (Bis)



ALBERTO GONZALEZ



*Maiatzaren 26an Badalonan hil zen JUAN BELOKI  
EVARDONERen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu  
jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara  
agertu izana.*



## Mendaron EAJ-PNV nagusitu da Udal Hauteskundeetan

*M.T.I alderdi berriak zinegotzi bat lortu du*

Maiatzaren 28an izan ziren Udal Hauteskundeetan EAJ-PNV alderdiak gehiago osoa lortu zuen Mendaron, 5 zinegotzi eskuratuz. HBk lehen zituen 2 zinegotziak mantentzen ditu eta botu gehien jaso dituen bigarren alderdia da. Hirugarrena Talde Independientea geratu da, aurreten sortu den talde berria, gaztez osatua.

EA dugu laugarren indar politikoa PSE-EEK orain arte izan duen zinegotzia galdu duen bitartean. Mendaroko Talde Independienteak ez du baloraziorik egiterik nahi izan, botua emateko sobreak ezberdinak izateagatik alegazio bat aurkeztu baitzuten eta oraindik ere erabakia-  
ren zai baitaude.

Anton Zubiaurre <b>EAJ-PNV</b>	Migel Kanalaetxeberria <b>EAJ-PNV</b>	J. Domingo Zulaika <b>EAJ-PNV</b>	Jose M. Riaño <b>EAJ-PNV</b>
M. Angel Arriola <b>EAJ-PNV</b>	Arantza Egaña <b>HB</b>	Ramon Urain <b>HB</b>	Nuria Ansuategi <b>EA</b>


1991	1995	1991	1995	1991	1995	1991				
<b>BOTUAK</b>	391	<b>414</b>	210	<b>152</b>	-	<b>111</b>	141	<b>104</b>	82	<b>53</b>
<b>ZINEGOTZIAK</b>	5	<b>5</b>	2	<b>2</b>	-	<b>1</b>	1	<b>1</b>	1	<b>0</b>

<b>B. OROKORRAK</b>	<b>400</b>	<b>158</b>	<b>126</b>	<b>73</b>	<b>29</b>	<b>22</b>

### BALORAZIOAK

#### EAJ-PNV

“EAJ-PNVren izenean mila esker zuen konfidantza gure alderdiari eman diozuen guztioi. Mendarotarron portaera ontzat eta positibotzat jotzen dugu, jendearen partaidetza oso handia izan baita (%74). Lortutako emaitzekin, zer esanik ez, EAJ oso gustura agertzen da, herriko botuan erdia inguru atera baititu, aurreko Udal Hauteskundeetakoak gaindituz. Gure nahia Mendarotar guztien gogoia geratzen zaizkigun hurrengo lau urteetako Udal gestioarekin betetzea da”.



#### HB

“Orokorrean emaitzak ezokorrak iruditzen zaizkigu EAJk gehiago absolutoa lortu baitu eta hurrengo lau urteetan, orain arte bezala, ikutzen diren gaitan ez delako ez kontsentsurik egongo ez eta beste zinegotzien iritzirik kontuan hartuko ere.



Bestalde, beste alderdi politikoak gure aurka egin duten kanpaina gogorraren aurrean tinko eutsi diogu Mendaron, bi zinegotziak mantendu ditugularik”.

#### EA

“Hauteskundeetan emaitzak nahiko positiboak bezala balioztatzen ditugu. Lehendik geneukan ordezkariak mantentzeko, Eusko Alkartasunaren finkaketa suposatzen du. Hau oinarri gisa hartuz, gure helburua Eusko Alkartasunaren zabalkuntza da. Nahiz eta Eusko Alderdi Jeltzaleak indar asko izan eta Talde Independientea sortu, hor jarraitu dugu. Eskerrik asko gudan jarri duzuen konfidantzagatik”.



## San Bartolome eliza (kronologia)

- 1751.ean Frantzia Enziklopedia argitaratzen hasi zen. Lau urte geroago Bergaran eta inguruko herrietan matxinada bat izan zen Gipuzkoako Batzar Nagusiek ganaduaren esportazioa debekatu zutelako.
- 1759an Fernando VI.a erregea hil zen.
- 1765ean Carlos III.ak Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak baimendu zuen. Sorlekua Azkoitiko Insausti jauretxea izan zen eta sortzaile nagusiak Azkoitiko zalduntxo ilustratuak: Xabier Munibe (Peñaflorida kontea), Manuel Iñazio Altuna eta Joaquín Egia (Narrosko markesa) besteak beste.
- 1766an matxinada bat izan zen Gipuzkoan gariaren salneurria garestitzeagatik eta jauntxoek janari hau gordetzeagatik. Artisauek eta nekazariak bat eginda nobleen eta almerkatarien aurka joan ziren. Azkoitin, Azpeitin, Elgoibarren, Deban eta Mutriken istilu latzak gertatu ziren.
- Altxamendu sozial hau erreprimitzeko 1.500 gizonez osatutako armada antolatuta zen. Beste batzuren artean Peñaflorida kontea eta Narrosko markesa zeuden. Armadak 150

pertsona atxilotu zituen Azkoitian eta Azpeitian bai eta Loiolako basilikan lanean ari ziren beste 74 langile ere.

- XVIII. mendean Lapurdin antzeko matxinadak gertatu ziren, 1726 eta 1784koak izan zutelarik hedapenik handiena.
- 1767an Jesuitak Espainiako erresumatik bidali zituzten eta bi urte geroago Lehen Industri Iraultzaren elementurik garrantzitsuenetariko asmatu zen, James Watten lurrin makina.
- 1773-1783 urte bitartean Ipar Amerikaren Independentzi gerratea eta Versailles-eko bakea izan ziren Amerikako Estatu Batuak sortuz. 1766an Bergarako Erret Mintegia jarri zen martxan irakaskuntza teknikoek eta zientifikoek oihartzun handia izan zutelarik.
- 1788an Carlos III.a hil eta bere semea zen Carlos IV.a izendatu zuten errege berri.
- 1789an Frantziako iraultza hasi zen. Iraultzaile frantsesek askatasuna eta giza eskubideak aldarrikatu arren Ipar Euskal Herriko anaiei ez zitzaion autonomia politikoa errespetatu.

PELLO ARRIETA



## Ignacio Izagirre (1896-1974)



- Upai baserrian jaio zen 1896ko abenduaren 26an.
- “Upai” ezizenez ezaguna, Eibarren armero lanak egin zituen, gero Gabilondon egon zen pistolak egiten eta azken 20 urteak Sigman eman zituen.
- Pisuja jaurtitzen zuen. 1920an Anberes-eko Olinpiadan parte hartu zuen.
- Espainiako eta Gipuzkoako txapeldun izan zen 1920an eta 1921ean pisu, disko eta jabalina jaurtiketan. 1927. urtera arte Estatuko selekzioak parte hartu zuen topaketa guztietan selekziozko ordezkari modura aritu zen.
- Izagirre, beste elgoibartar batzurekin batera (Mugerza, Unzueta, Arakistain, Ansola, Muguruza, Landa, Aizpitarte, Ziaran...) Gipuzkoako atletismoaren erakusgarri garrantzitsua izan zen taldeko kide zen.
- Perretxikuzale demasa zen, goizeko 5etan jaikitzen zen perretxikutara irteteko.
- 1974ean hil zen, abenduaren 13an.



**OIERKI IGONGAILUAK**

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● 📠 ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



*Eskulanean  
saiatzen gara*

*Pastelak  
Tartak  
Izozkiak  
Bonboiak*

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

## MOTZAK

### Kirol iharduerak Trinitate jaietan

Udal Kirol Zerbitzuak kirol iharduera ezberdinak antolatu ditu Trinitate jaien barruan. Larunbatean, hilak 10, goizeko 11etan automodelismo erakustaldia burutuko da Mintxetan. Euskal Herriko auto txikien gidariak hartuko dute parte, 20 bat gidari izango dira guztira. Ordu berean eta eguraldiak laguntzen badu, Karakatetik parapentez jeitsiko dira Mintxetaraino Arroako *Izarraitz* taldeko 15 bat kide. 12ak aldera, eskolarteko jokuei dagokien sari banaketa egingo da benjaminetan parte hartu duten haur guztien artean, eta irabazle geratu direnen artean alebinetan eta infantiletan. Ekintza hauek Mintxetan burutuko dira.

### Ikasxerok eskubaloiko final erdietan

San Bartolome Ikastolako "Ikasxerok" taldeak eskubaloiko txapelketari dagokien final erdietako partidua jokatuko du larunbatean, hilak 3, Zumaiako kiroldegian Oñatiko Milagrosa ikastetxeko aurka. Irabaziz gero, Ikasxeroko mutilek igandean izango den finala jokatuko dute eta Gipuzkoako txapelkun edo txapelkun orde geratuko dira infantilen kategorian.

### Txirrindulari lasterketa

Larunbatean, hilak 3, arratsaldeko 4etan, Lagun Taldeak antolatuta, txindulari lasterketa burutuko da Ibaitearte industrialdean. Infantilek eta Txirrindulari eskolakoek hartuko dute parte. Ibilbidea Ibaitearten birak ematea izango da eta Gipuzkoako eskoletako txirrindulariek hartuko dute parte.



Andoitz  
Agirregomezkorta:

### "Gerriko beltza pausu inportantea da"

■ **Zer suposatzen du gerriko beltzak?** - Judoan hasten zeranien helburu hori daukazu. Lehenengotik kirola eitxiarren juten zera baina bigarren helburua gerriko beltza lortzia da. Gerriko beltza gauza handi bat bezela ikusten da eta azkenian lortziak satisfaziua ematen dau.

■ **Azterketa gogorra izaten da?** - Ondo prestatuta baldin bazuaz, hila-bete batzuk lehenago entrenatzen hasita, ez dao problema haundirik. Txikitatik asimilatzen uzaz ikasitakua, prozesu bat bezela da, beste pausu bat.

■ **Eta ondoren?** - Beltzan barruan ere maila ezberdinak daoz. Ointxe Igo dan naiz, bajuena. Gero bigarrena, hirugarrena eta horrela hamaikera arte edo ez dakit zenbatera arte. Baina maila horretan oso gutxi daude munduan, Japonen edo egongo da batean bat.

■ **Gerrikoaren koloreak adierazten du maila?** - Bai, zuritik beltzera dizez eta tartian daoz horixa, naranja, berdian, urdina, marroia eta beltza. Txikitan koloreak konbinatzen dia, zuri-horixa, hori-naranja...

■ **Txapelketatan nola ibili zara?**

- Aurten Gipuzkoako hirugarrena izan naiz baina konpetitzen txarra naiz, urrezkorik oso gutxi daukat.

■ **Zer eduki behar du judoka on batek?**

- Ondo ibiltzeko, preperazio ona, nor bere



buruagan konfiantzia; indarra eta abiadura ere oso garrantzitsuak dia... eta besuak oso ondo erabiltzia, askotan hankak baino inportantiauk dia. Teknikia ez da dana.

■ **Defentsarako erabiltzen al da judoa?** - Atakatzeko baldin bada jui-zuia euki dezakezu. Nik buruketan ospa eitxen dot, ez dot sekula erabiltzeko biharrik euki baina eukiko banu erabiliko nuke.

■ **Karatea eta judoaren artean alderik al dago?** - Esaten dabe filosofia aldetik oso antzerakuak diala baina ikusten badozu oso desberdinak dia, baten ostikarak eta ukabilkadak eta bestian lurrera botatzia eta immobilizatzia.


■ **Sakrifizio handia egin behar izan duzu?** - Denboria beti kentzen dizu, batez ere gerriko beltza lortzeko preperatzen ibili naizenian, baina txikitan ez. Jarraitzeko asmua daukat baina karrerriakin hasten banaiz ezin-go diot hainbeste denbora dedikau.

■ **Irakasleari irabazterik bai?** - Aspal-dixan ez degu elkarrekin burrukatu baina oin hortxe-hortxe ibiliko ginan.

• Adina: 17  
• Zaletasunak:  
Txirrindularitza eta pilota  
• Lesiorik? Inportanterik ez; tiroiak batez ere  
• "Llave"rik gogokoena?  
Harai Goshi deitzen dena

**Maria Urizar**  
ileapaindegi  
mixtoa  
Errosario 9-1ezk.  
☎ 74 44 89 ELGOIBAR


**BOUTIQUE  
DEL PAN**  
Enpanada  
Baserriko ogia  
B. Ecnarro, 1 ☎ 74 33 92



JOSE ANGEL ZABALA  
**URDAITEGIA**  
Berezitasunak:  
Bakilaua  
Txerrikiak  
Merkatu Plaza 33-34

# Inoiz baino eskaintza zabalagoa udako kirol kanpainan

Udal Kirol Zerbitzuak udarako kirol eskaintza kaleratu berri du. Zazpigarren edizio honek berrikuntza ugari dakartza aurreko urteekin konparatuz. Eskaintza ere inoiz baino zabalagoa da. Udal Kirol Zerbitzuak eskaintzen dituen kirol ihardueren artean rafting-a, puenting-a, kayak, rappel-a eta hidrospeed-a egiteko aukera dago, besteak beste.



■ ■ Eskaintza zabala da aurtengoa. Besteak beste, igeriketa ere egin ahal izango da.

**U**ztailaren 3tik 28ra bitartean haurrentzat batetik, eta gazte eta helduentzat bestetik, era guztietako kirolak egiteko aukera izango da. Eguraldiaren arazoetatik urtean zehar burutu ezin daitezkeen kirol iharduerak egiteko aukera eskaintzea da kanpainaren helburua. Eguraldi ona aporobetxatuz, ikastaroak ezezik, astebukaerako irteerak ere antolatu dira.

## Haurrentzako eskaintza

Bi programa ezberdin antolatu ditu Udalak adinak kontuan hartuta. 14 urtera arteko neska-mutilei zuzendua, zortzi iharduera ezberdinen artean aukeratu ahal izango da: tenisa, patinaia, eskalada,

buzea, atletismoa, mountain bike, rugby-a eta igeriketa. Arratsalde zain goizez izango dira ikastaroak, merkeenak 500 ptako kostua dauka eta garestienak 1.625 ptakoa.

## Gazteak eta helduak

Gazteentzako eta helduentzako eskaintzaren barruan 17 ihar-

duera ezberdin burutzeko aukera dago: tenisa, buzea, patinaia, eskalada, aerobik-a, muskulazioa, aquaerobik-a eta igeriketa ikastaroen artean eta irteerei dagokienean, Urbasa zaldiz, rafting-a, kanoi jeitsiera, hidrospeed-a, kayak, piraguismoa, puenting-a, rappel-a eta espeleologia. Azken hauek asteburuetan, abentura modura, naturarekin kontaktuan burutuko dira. Rafting-a, kayak, piraguismoa eta kanoi jeitsiera Ebro ibaian egingo dira eta puenting-a, rappel-a eta espeleologia Oñatin.

Izen-ematea irekita dago Udal Kirol Zerbitzuan ekainaren bukarara arte (74 44 15).



**Zaldi gainean ibili, puenting-a, rafting-a eta abar egiteko aukera izango da uda honetan**



## AGENDA

### FUTBITOA Urasandin Igandea 4

11,00: Univ. Chile - H. Verboten G. Garcia - Karkis  
12,00: King-Kong - Mimox D.T. Veterans - Pedruskos  
13,00: Kosakos - San Roketarra

### TXIRRINDULARITZA Ibaितarten Larunbata 3

16,00: Gipuzkoako Txirrindulari Eskolen lasterketa

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Elgoibar 1 - Urola 1 (Infantilak)  
Zarautz 2 - Elgoibar 0 (Kadeteak)  
Elgoibar 0 - S. D. Eibar 2 (2. errejionala)

### ESKUBALOIA

Caja Bilbao 23 - Elgoibar 21 (Kadete mutilak)  
Elgoibar 21 - Portugalete 21 (Kadete mutilak)  
Caja Bilbao 41 - Elgoibar 32 (Jubenil mutilak)  
Elgoibar 22 - Portugalete 18 (Jubenil mutilak)

### FUTBITOA

Karkis 9 - H. Verboten 0 S. Roketarrak 3 - Veterans 1  
Mimox 3 - Garajes Garcia 0  
La Maxia 1 - Fotero 0 Tropiko 1 - Lucky Luke 2

## MOTZAK

### Elgoibarko Mendi Itzulia burutuko da igandean

Igande honetan, goizeko 6,30etan Morkaiko egoitzatik aterako dira hainbat mendizale duela bi urte berreskuratutako Elgoibarko Mendi Itzulia burutzeko asmoz.

Elgoibarko sei tontor egingo dituzte gutxi gora behera zortzi eta hamar orduren buruan. Maltzaga aldera abiatuko dira lehenik, Karakate, Hirukurutzeta eta Azkaratera heltzeko. Hemen lehen kontrola ezarriko da eta indarrak berreskuratze aukera ere izango dute. Ondoren Altzola alderantz jarraituko dute eta San Migelera heltzean bigarren atsedena egingo dute. Bukatzeko Morkaikora igoko dira, Saturixotik igaro eta berriro Elgoibarrera. Ibilbidea 43 bat kilometrokoa da, luzea eta nahiko nekagarria. Ibilaldia neurtua izan ohi da. Iaz lehen sailkatuek 6 ordu eta 57 minututan burutu zuten bidea eta guztira 69 mendizalek hartu zuten parte.

Lehen mendi itzulia 1927. urtean antolatu zuen C. D. Elgoibar elkarteak. Bertan 28 mendizale izan ziren eta berriro antolatzen hasi zenetik gero eta jende gehiago animatzen da parte hartzera.

## KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK



### Jose Antonio Ruiz

Mintxeta-Txankakua taldeko korrikalaria, argazkian domina lepotik zintzilik duela, Gipuzkoako txapeldun orde eta Euskadiko laugarren geratu da junior mailan 400 metroko distantzian. Joan den larunbatean Basauriko atletismo pistan finalerako sailkatzea lortu zuen 53"10ko denbora eginez eta bere marka pertsonala 20 ehunenekotan hobetuz. Igandean berriro hobetu zuen denbora 52"74 eginez. Zilarrezko domina honen ondoren, Espainiako Txapelketarako sailkatzeko denbora lortzen eta 800 metroan ere postu on bat eskuratzen saiatuko da.

### Jabier Arriola,

"Egi", Asteasun izan zen joan den astean Gipuzkoako Harrijasotzaileen

Txapelketan parte hartzen.

San Pedrokoak 91 alditan jaso zituen zilindroa, bola eta harri kubikoa bederatzi minututan. Marka honek

bigarren postua eskuratzeko aukera eskaini zion elgoibartarrari, hortaz, Gipuzkoako txapeldun ordea

da.



## ESOZIA JATETXEA

*Asteburu bakoitzean menu berezi bat*

Adibidez:

- Aguakate eta ganba koktela
  - Izokiz beteriko hojaldrea  
sainzurizko kremaz lagundua
  - Makailua pikillozko piper saltsarekin
  - Aaten konfit errea
  - Etxeko pastel sorta
  - Etxeko ardoak eta kafea
- 2.900 pta + %7 BEZa -

KUADRILENTZAKO  
MENU BEREZIAK

Esozia auzoa z/g - ☎ 75 10 01 - SORALUZE

## 150 haur arituko dira igandeko Tanborradan

Trinitate jaien atarian, frantses eta sukaldari jantzitako haurrek tanbor hotsen erritmora zeharkatuko dituzte herriko kaleak igande honetan. Aurten bi tanborrada izango direnez, nagusia eta haurrena, azken hauena astebete aurreratzea erabaki da. Plaza Handitik aterako dira igandean eguerdiko 12etan "Donostiako martxa", "Tatiago", "Idiarena" eta "Diana" doinu ezagunak tanborrekin batera entzungo direlarik.



■ ■ Igandean, tanbor hotsak entzungo dira berriro Elgoibarko kaleetan zehar.

**E**lgoibarko Izarrak antolatutako haurren tanborrada Atxutxamaika Begirale taldearen ardurapean egingo da aurten. Entsaioak Plaza Merkatuko azken solairuan burutu dituzte eta azken entsaiua, larunbat honetan izango dute. 150 bat haur frantses eta sukaldari jantzita, barrieki eta tanborrei makilekin joka, dira tanborrada osatzen dutenak. Udal Musika Bandak joko ditu piezak eta ohi denez Plaza Handian hasiko da.

Eguerdiko 12etan bilduko dira tanborrada osatzen duten haurrak Plazan. Bi zuzendarik eramango dute barrika eta tanbor jotzaileen martxa, batek tanborrak zuzenduko ditu eta

besteak barriak. Aurten ere zaldun batek irekiko du aurreko aldean tanborradaren pasua. Kalejira Santa Ana kaletik hasiko da, San Frantzisko kalea, Maala eta berriro Plaza alderuntz abiatzeko. Tanborrada bertan amaituko da, eta ohi denez, alardea

joko dute bukaera gisa.

### **Nagusien Tanborradakoei zuzendutako oharra**

Nagusien tanborradako antol-tzaileek ohar bat helerazi nahi die entsaioetan diharduten guztiei: Tanborrek eta barriek ez omen dute gerrira lotzeko sokarik eta horregatik zinturoia jantzita eraman behar dute Pilar ikastetxean izango diren entsaioetara. Azken entsaioa Trinitateetako larunbatean, hilak 10, izango da.

.....  
**"Tatiago", "Donostiako martxa", "Iriarena" eta "Diana" doinuekin arituko dira Tanborradan**  
 .....

**HITZALDIA**  
 + DIAPOSITIBAK

## Zer egingo dut oporretan?

- **Adrian Langara**  
 - Xauen bidaiak: natura eta kirola
- **M. Karmen Iriondo - Xabier Ansola**  
 - Planifikatu gabeko oporrak
- **Izaskun Arozena - Edu Badiola**  
 - Brigadistak: oporrak lanean

**Ekainak 8, osteguna**  
**Arratsaldeko 7etan**  
**KULTUR ETXEAN**

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarra K.E.



LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



## Albiste onen kazetariak

Elgoibarko Institutuko ikasle talde batek ONCEk antolaturiko albiste onen egunkariari buruzko lehiaketa irabazi du. Aitor Epelde, Javi Fernandez, Mari Mar Boo eta Celia Pelaz neska mutilek osatzen dute aipatu talde irabazlea, 17 urteko elgoibartarrak dira lauak. Berandu izan zuten lehiaketaren berri eta astebetean burutu behar izan zuten lana. Halere, azken mementuko presak ez ziren oztopo izan eta Gipuzkoako lehen saria ezezik, Euskal Autonomi Elkarteak irabazleak ere izan dira.

**- Zer zen zehazki egin behar zenutena?**

- Egunkari bat osatu behar genuen, albiste onez osaturiko egunkari bat eta albiste guztiek zerikusia izan behar zuten pertsona ezinduekin. Formatoa ere egunkarietara dutena bezalako izan behar zen, atalez osatua, argazki eta guzti, titularrak... Komikia zegoen, kirolak, umorea, elkarriketa bat, editoriala...

**- Albisteek benetazkoak izan behar zuten?**

- Benetazkoak edo asmatuak, aukeran zegoen. Guk bietakoak jarri genituen. Besteak beste, Elgoibarko Katea lantegian izan ginen, elkarriketa bat egin genuen, Azpeitiko Udaltzaren deitu genuen bertan gauza asko antolatu baitituzte ezinduentzat, egunkarietan eta aldizkarietan

albisteak bilatzen ibili ginen... Denetik egin genuen.

**- Nola eman zenioten egunkari itxura?**

- Orriak bagenezkan eta argazkiak gainean pegatu genituen, baita testuak ere. 8 orrialdekoa atera zitzaigun. Bukatu eta gero, koloretako fotokopiak atera genituen eta benetako egunkari baten itxura hartu zuen. Oso ondo geratu zen.

**- Astebetean egin behar izan zenuten dena...**

- Bai. Berez lehiaketa kaleratu zenetik bi hilabete epea zegoen lanak bidaltzeko baina gu azkenean orduan enteratu ginen. Denbora asko eman genuen lanean eta eskerrak irakasleek klase orduak utzi zizkiguten lanerako, bestela...

**- Zer izan da zailena?**

- Zailena baino, gogo-



rrena denbora falta izan da, azken orduan ibili beharra. Dena dela, lana banatu genuen eta ondo antolatu ginen.

**- Zein izan da albisterik bereziena?**

- Guretzat oso garrantzitsua izan da lan hau egitea gauza asko ikasi baititugu. Denok dakigu ezinduak daudela, gauzak egiten ditzutela baina ez ditugu benetan ezagutzen, ez gara konturatzen beraiek ere bizitza normala egiten dutela... Guzti hori ikasi dugu eta mundu honetan dagoen beste mundu bat ezagutzeko aukera izan dugu, oso aberasgarria izan da.

**- Gipuzkoako eta Autonomi Elkarteak lehenak izan zarete, ez?**

- Bai eta oraindik Estatu mailako irabazlea nor izan den jakitea geratzen zaigu. Beraz, agian..

**- Saria espero al zenuten?**

- Gustura geratu ginen egindako lanarekin baina otsailean bidali guretzat eta horrenbeste denbora pasa eta gero ezer ez genekenez... Ia ahaztua geneukan. Irabazleak izan ginela jakiteak ilusio handia egin zigun, batez ere hainbeste denbora pasa eta gero ia ahaztua geneukan zerbait zelako.

### TEXTIL HOGAR LAGUNAK

ESKAINNTZA

Oihalgintzan zure etxerako behar duzun guztia daukagu.

Olaso kalea 54. Tel: 74 44 57 ELGOIBAR

IRAEGUI

ORDUTEGIA:

- goizez: 10 - 13
- arratsalde: 4,30 - 7

MASAJA TERAPEUTIKOA  
ETA DEPORTIBOA

*Aurrez deituz  
gero, hobe!*

Errosario kalea 34, 1 eskuma Tel: 74 18 51



## Salerosketak

INPRESORA BAT saltzen dut. Zuri beltzean. Ia berria.  
☎ 74 20 95

Atxuri baserrian "COLIE" ARRAZAKO TXAKURKUMEAk dazkagu salgai.  
☎ 15 04 41

1m x 0,70mko teknigrafoa duen DELINEAZIORAKO MAHAI BAT saltzen dut. Prezio interesgarria.  
☎ 74 22 29

Bi oheko (1,80m) LOGELA "PUENTE" BAT saltzen dut.  
☎ 74 28 29  
1,30etatik 2,30etara edo gauez

KAMINUKO BIZIKLETA BAT salduko nuke. Egoera onean dago.  
☎ 74 28 56 Gaizka  
Gauzez deitu

Bigarren eskuko MOTO-AITZURRA (moto-azada) EROSIKO NUKE.  
☎ 74 22 89

CD ROM IRAKURLEA saltzen dut. Estreinatuta gabe. SCSI. Hiru abiadura. CD arruntak ere irakurtzen ditu. (SONY CDU 55 S)  
☎ 74 15 69

## Etxebizitzak

SANTA POLAN bungalow bat daukat ALOKATZEKO. Hondartzako lehen ilaran. Ekaina, uztailko lehen hamabostaldia eta iraila.  
☎ 74 27 02

Etxe bat SALTZEN dut ZARAUTZEN Amueblatua.  
☎ 78 19 50

Pisu bat ALOKATZEN da uztaila eta abuztuan DEBAN.  
☎ 74 28 24

Etxe haundi bat ALOKATZEN da DEBAN, uztaila eta abuztuan. Alamedan.  
☎ 19 22 37 Idoia

Etxe bat ALOKATUKO nuke. Amueblatu gabe. Ez du inporta buhardilla bat izatea. Duta batekin.  
☎ (94) 616 65 03 Maria Luisa

Apartamentu bat ALOKATZEN dut MARBELLAN udako hilabeteetan eta urte osoan. Hondartza ondoan. Urbanizazio pribatua igerilekuarekin.  
☎ 10 36 55

Etxe bat daukat ALOKATZEKO. Guztiz jantzita. Hiru gela, jangela, sukalde eta igogailua.  
☎ 74 37 41

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut Urasandi auzoan, behelaldean. 4 gela, 2 bainu, sukalde, sala eta trasteroa. 100 metro karratu. Erreformak eginda.  
☎ 74 15 69

## Lana

Tituludun Erizain euskalduna, etxeetara erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.  
☎ 74 02 33 Marta Diego Arrieta (Erizain diplomatua)

Pertsona nagusi edo gazte elbarrituak ZAINTEKO, etxeko lanak eta abar EGITEKO prest nago. Esperentzia daukat.  
☎ (94) 616 65 03 Maria Luisa

ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Egun osoan edo orduka. Gauzez PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke.  
☎ 75 62 57

## Garajeak

GARAJE BAT dut saltzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.  
☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m<sup>2</sup> eta bi planta.  
☎ 74 25 01 / 10 82 43

## Agurrak

Ekainaren 2an urteak betetzen dituen Koldo Leibar Anari ZORIONAK! bere ikasleen partez.

Eskuminak eman nahi dizkiogu Gema izeneko taxista bati oso atsegina delako eta gurekin hizketan denbora pilo bat egoten delako. Eukene eta Haizea.

## Bestelakoak

Elgoibarko antimiliak ARTXIBAGAILU BAT behar du merke-merke edo oparituta. Halakorik baduzue deitu.  
☎ 74 02 09 Aitor

14 eta 15 urteko bi mutil gazte gara eta KITARRA KLASEAK hartuko genituzke.  
☎ 74 37 23 Aitor

Joan den ostiralean Elgoibar-Eibar autobusean ALIANTZA BAT aurkitu nuen.  
☎ 10 66 61 Amaia

**250 laguntzako jantokia**

**Ezkontza, bataio eta jaunartzeak**

**Karta eta eguneko menua**

**Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe!**

# KAI JATETXEA

MAGDALENA AUZOA, 4 MUTRIKU. ☎ 60 33 44 / 60 41 34

**15 minutura gaude (18 km.)**



Kalbarioa

DEBA

## 2 OSTIRALA

19,30 ZUHAITZ AISIALDI  
TALDEAREN BILERA

✓ Kultur Etxean

22,00 GARE IRRATIZALETUEN  
BILERA

✓ Kultur Etxean

22,15 DANTZA

Traspasos taldearen "Sombrisas"  
Herriko Antzokian  
Antolatzaileak: Udala eta Dantza  
Fundazioa

✓ Herriko Antzokian

## 3 LARUNBATA

16,00 INFANTILEN  
TXIRRINDULARI LASTERKETA

✓ Ibaitea industrialdean

Antolatzailea: Elgoibarko Lagun  
Taldea

22,15 ZINEA

"La reina Margot"

## 4 IGANDEA

6,30 ELGOIBARKO MENDI  
ITZULIA

✓ Morkaikoren Elkartetik

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

12,00 HAURREN TANBORRADA

✓ Irteera Plaza Handitik

19,30 ELIZ ABESBATZAREN  
KONTZERTUA

✓ San Bartolome elizan

19,30-22,15 ZINEA

"La reina Margot"

## 6 ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Un buen hombre en Africa"  
(Ikuslearen eguna)

## 7 ASTEAZKENA

20,00 MOZART LAUKOTEAREN  
KONTZERTUA

Musikariak: Elisabeth Podolak,  
Waldemar Machmar, Grezgorz  
Kawka, Aleksander Mikolajzyk.

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Musika eta Dantza  
Fundazioa

## 8 OSTEGUNA

19,00 DIAPOSITIBA HITZALDIA

Gaia: Zer egingo dut oporretan?  
Hizlariak: Adrian Langara, M.  
Karmen Iriondo, Xabier Ansola,  
Izaskun Arozena eta Edu Badiola.

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

## 9 OSTIRALA

22,30 TRIKITILARI ESKOLAKOEN  
KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

## txandak

### FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
3, larunbata:	Etxeberria	Zabaleta
4, igandea:	Etxeberria	Zabaleta
5, astelehena:	Ormazabal	Anduaga
6, asteartea:	Ormazabal	Anduaga
7, asteazkena:	Ormazabal	Anduaga
8, osteguna:	Ormazabal	Anduaga
9, ostirala:	Yudego	Anduaga

### FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Zabaleta: Kalebarren 9, Plaentxi  
Te. 75 13 84 |

Anduaga: Mendarozabal 1, Mendaro  
Tel. 75 61 42/75 60 27

### OKINDEGIA:

4, igandea: BOUTIQUE DEL PAN



### La reina Margot

Zuzendaria: Patrice Chereau  
Antzezleak: Isabelle Adjani,  
Daniel Auteuil, Juan-Hugues  
Anglade, Vincent Perez, Miguel  
Bose.

1572, Frantzia. Juana d'Albret-ek eta  
Catalina de Médicis-ek katolikoak  
eta protestanteak batzeko asmoz  
beraien seme-alabak ezkontzea  
erabakitzen dute, Nafarroako Enrike  
eta Margot erregina hain zuzen.  
Ezkontza baino lehen Juana d'Albret  
hil egiten da, ustez pozoindua. Dena  
den, ezkontza gauzatu egingo da. Sei  
egun beranduago San Bartolome  
eguneko sarraskia gertatuko da.  
Carlos IX. aginduz 10.000 inguru  
protestante hilko dituzte. Gau  
honetan protestante gazte batek  
Margot erreginari laguntza eskatzen  
dio.



### Un buen hombre en Africa

Zuzendaria: Bruce Beresford  
Antzezleak: Colin Friels, Joanne  
Whalley-Kilmer, Sean Connery.

Kinjanja hirian (Afrika)  
hauteskundeak izango dira laister.  
Britainiarrek interes ekonomikoak  
direla eta, petrolio esplotakuntzak  
Britainiarren esku geratzeko, Sam  
Adekunleri laguntza emango diote  
Kanpo Arazoetarako Ministro izan  
dadin. Laguntza horren truke,  
Unibertsitatean erresidentzia bat  
eraikitzearen kontrakoa den  
unibertsitateko kide bat  
konbentzitzea eskatuko die ministro  
gaiak Britainiarrei.



# KENSINGTON

Pedro Muguruza 8. ELGOIBAR TEL- FAX 74 02 36



GIPUZKOAKO  
HIZKUNTZ IRAKASLE  
ELKARTEKO BAZKIDE

## UZTAILEAN GOGOR EGIN INGLESA, FRANTSESA ETA ALEMANARI

**Matrikulazio epea zabalik daukazu !**

*Ekintzaz beteriko UDA*

**MAILAK:**

1. mailatik (oinarrizkoa) 11. mailara  
(aurreratua) bitartean.  
Sarrerako azterketaren arabera.

**TALDEAK:**

- OINARRIZKO MAILAK HAURRENTZAT  
(3 URTEK GORA).
- Mintzamen praktikak
- Kanpo komertzioa
- Itzulpena (bi hizkuntzetara)
- Literatura
- Errekuperazioak

**IRAUPENA:**

- A - Ordubete egunero (19 ordu)
- B - Bi ordu egunero (38 ordu)
- D - Hiru ordu egunero (57 ordu)  
(goizez, arratsalde edota gaez)

- **Datorren ikasturterako  
haserako taldeak**
- **Eskolaurreko talde berriak  
(3 urte gora)**

**HAURTZOAK • GAZTETZOAK • NAGUSIAK**

# IBAR-TXIKI

EDARI BANATZAILEA

☎ 740508

80 puntu 100en  
ganean "GUIA PENIN  
DE LOS VINOS DE  
ESPANA"n.

Ardo gazteen  
puntuazio altuena,  
"Crianza", "Reserva"  
eta "Gran reserva"  
direlakoan gaineratik



*Lateko Ardoa*